

## Merkatuaren segmentazioa

Gure motxilak edozein adin tarteko pertsoneri zuzenduta daude, baina batez ere kirol munduan murgilduta daudenentzat. Hiru motxila mota ditugu txikia, ertaina eta handia eta bakoitza ekoizteko hainbat ezaugarri eta behar kontutan hartu ditugu. Hainbat taldetan bereiz daitezke.

- **Motxila txikia:** Batez ere **txirrindularitzan, korrika eta oinezkoentzat** begira ekoiztutako motxila da. Txikia da baina gauzak gordetzeko tamaina dezentea dauka, gainera material flexible batez dago egina gauzak hobeto sartzeko.



- **Motxila ertaina:** **Mendizaleentzat** eta **egun pasa** joaten diren kirolarientzat dago zuzenduta batez ere, baina gure **egunerokotasunean** ere erabil daiteke. Tamaina aldetik ez da ez oso handia ez oso txikia, erraz moldatu daiteke berarekin.



- **Motxila handia,** hau gehienbat bidaietarako da aproposa, **abenturazaleentzako**. Motxila honek leku asko du behar dugun guztia sartzeko. Gainera esterilla eramateko aparteko leku bat dauka.

